

GABON, HONTZA!



FITXA TEKNIKOA

Gabon, hontza! Pat Hutchins (1972). Itzulpena: Manu López Gaseni. Pamiela Kalandraka, 2013

Liburuaren aurkezpena

Metatzen den ipuin baten aurrean gaude oraingo honetan, txikien belarria eta umorea kilikatzeke. Basoan, egunez txori asko ibiltzen da bere txorro-txioez kantuez edota soinuez gure eguna alaitzen. Baina gaua iristen denean, gehienak ezkututzen dira eta hontzak eta honen marra-marra tristea entzuten da. Aurreikuspena, jolasa, txorien kantuak... Txikiek hain beharrezkoa duten egitura errepikakorra eta klasikoak bilakatu diren ilustrazio koloretsu bezain biziak.

Nola kontatu

- Orriz orri, kontatu ahala, animalia izena igarri.
- Liburu hau askotan kontatuko da.
- Errepikatzen den testua ikasleek esango dute eta hurrengo animalia zein den aurreikusi.
- Kontaketa bakoitzean konplikatuko da, animaliak, soinuak aurreikustera gonbidatuz.
- Behin eta berriz kontatu ondoren, aurreikuspenak haur bakoitzari eskatu.

Proposamenak luzatuz

- Ahozko kontaketeekin, antzezpenekin zerikusia duten proposamenak bidera daitezke.
- Ipuin hauek ere irakurketarekin dute zerikusi handia, aurreikuspenak etengabe gertatzen direlako.

Proposamenak zehaztuz

- Beste gela batera, liburu eta guzti, talde txiki batean kontatzera joan.
- Animalia bakoitzaren soinuak diktatu eta soinu hau dagokionari lotu; hauek txarteletan idatzi; ordenatu, desordenatu...